

Oiartzungo Udalak 2024an Oiartzungo herritarrek Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatutako ikastaroak egiteko dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak.

1. ARTIKULUA.- Xedea

Oinarri hauen xedea da, norgehiagoka prozeduraren bidez, 2024an Udako Euskal Unibertsitateak urtero antolatzen dituen ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei matrikula ordaintzen laguntzeko dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak ezartzea.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2022-2024rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluan jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

2. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

Dirulaguntza hau eskatzeko aukera izan dezakete Udako Euskal Unibertsitateak urtero antolatzen dituen ikastaroetan parte hartu duten Oiartzunen erroldatutako pertsonak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak ezartzen duen moduan.

Dirulaguntza deialdi honetan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da:

- Oiartzunen erroldatua egotea
- % 100eko asistentzia izatea diruz lagunduko den ikastaroan

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta, udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen, beste programa baten edo batzuen

bidez bideratu behar direnak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

3. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren kontzeptuak eta irizpideak. Zenbatekoa.

Dirulaguntzak emateko irizpideak.

Ikasle eta langabetuei matrikula gastuen %70a ordainduko die Udalak.

Ikasle eta langabetu ez diren UEUko ikasleei matrikula gastuen %50a ordainduko die Udalak.

Ikasle bakoitzak gehienez 100,00 euroko laguntza jaso ahal izango du, ikastaroko.

Aurrekontua

Dirulaguntza hauek emateko, guztira, 300,00 euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalak 2024 ekitaldirako indarrean duen aurrekontuko 1 0321.481.335.00.06 2024 (5649) DIRULAGUNTZA: UEU-KO IKASLEEI zenbakidun partidaren kontura.

Gehienezko dirulaguntza eta aldaketak

Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei dirulaguntza emateko nahikoa aurrekontu-krediturik ez badago, hainbanaketa bidez esleituko da dirulaguntza eskabide guztien artean, inongo lehentasun-ordenarik gabe.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

4. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian edota erregistro elektronikoa bidez aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Eskaera orria. (I. ERANSKINA)
- b) Diruz lagunduko den ikastaroaren matrikularen ordainagiria.
- c) UEUK egindako asistentziaren ziurtagiria.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Oiarzungo Udalak bitarteko elektronikoen bidez egingo ditu deialdi honetarako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak, datu elkarreragingarri hauek lortzeko:

- Identitatea (eskatzailea pertsona fisikoa bada).
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko Zerga betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatea.
- Eskaera egiten duen interesatuak eskaera orrian adierazitako kontu korrontearen titulartasuna.

Horiek guztiak, interesdunak eskabidean berariaz aurkakorik adierazi ezenez; aurka azalduz gero, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

- Identifikazioa egitea nortasuna egiaztatzen duen edozein dokumenturen bitartez, eskatzailea pertsona fisikoa bada (NAN, pasaporte, e.a.)
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko Zerga betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Gizarte segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiria.
- Eskaera egiten duen interesatuak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua araber, Oiarzungo Udalak ezin baditu agiri horiek

elektronikoki bildu, salbuespen gisa, eskatu ahal izango dio interesdunari horiek aurkezteko.

5. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

6. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 2024ko uztailaren 1etik azaroaren 15era arte egin ahal izango dira.

Azaroaren 16tik urtea amaitu bitarte bukatzen diren ikastaroetarako dirulaguntza eskaerak hurrengo urteko deialdian egin beharko dira.

Eskaerak Oiartzungo Udaleko erregistroko dataren arabera aztertuko dira eta 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatziko dira.

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epeetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

7. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

8. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Euskara arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- Txostena egin eta Euskara Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena luza dezan.
- Alkateak Dekretuz behin-behineko proposamena egingo du, hamar eguneko epea eskainiko die pertsona interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.
- Espedientean, bere esku dagoen informaziotik ondorioztatzen denez, pertsona onuradunek dirulaguntzak eskuratzeko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duen instrukzio organoaren txostena jaso beharko da.
- Oiartzungo Udaleko web orrian (www.oiartzun.eus) eta udaletxeko iragarki taulan behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.
- Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena egin dela ziurtatu ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.
- Dirulaguntza onartu dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da, eta honetarako ez zaie beste inongo bermerik eskatuko onuradunei.

9. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiarzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

10. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntzagai den ikastaroaren ordainketaren eta bestelakoen agiriak dirulaguntza eskaerarekin batera aurkezten direnez, ez da beste justifikazio agiririk eskatuko.

Espedientean, bere esku dagoen informaziotik ondorioztatzen denez, pertsona onuradunek diruz lagundutako ekimenak burutu dituztela egiaztatzen duen instrukzio organoaren txostena jaso beharko da.

11. ARTIKULUA.- Dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Oiarzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

12. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiarzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.